



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## ***Missa Solemnis* Beethovenen maisulanak emango dio amaiera Arriaga Antzokiaren denboraldiari**

- Mira Alkhovik, Nerea Berraondo, Michael Porter eta David Menéndez dira ekainaren 21ean, larunbatean, 19:00etan eskainiko den kontzertuaren lau ahots solistak.
- Bilboko Koralek, Enrique Azurzaren zuzendaritzapean, eta Iruñeko Orfeoiek, Igor Ijurraren zuzendaritzapean, beren indarrak batuko dituzte 100 ahotsez osatutako talde handi bat osatzeko, zeinak publikoa hunkituko baitu, konposizio indartsu baten interpretazioarekin.
- Musika zuzendaritzaz Nuno Coelho arduratuko da eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) gidatuko du bere batutarekin.

**Bilbo, 2025eko ekainaren 19a.**- Arriaga Antzokiak datorren larunbatean, ekainaren 21ean, itxiko du 2025-2026 denboraldia. Amaiera Arriaga Antzokiak berak ekoiztiko kontzertu batek emango du, eta **Ludwig van Beethoven** ospetsuaren ***Missa Solemnis*** maisulan handiaren indar eta sentsibiltate guztia eramango dizkio publikoari.

**Nuno Coelho** portugaldar zuzendari gaztea arduratuko da musika zuzendaritzaz — gaztea izan arren, ibilbide oso oparoa du dagoeneko—, eta lehen mailako lau abeslarik interpretatuko dute: **Mira Alkhovik, Nerea Berraondo, Michael Porter eta David Menéndezek**; haiekin batera arituko da bi talderen baturak osatutako 100 ahotseko abesbatza handia, **Bilboko Koralek** —**Enrique Azurzaren** zuzendaritzapean— eta **Iruñeko Orfeoiek** —**Igor Ijurraren** zuzendaritzapean— osatutakoa. **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)** arduratuko da interpretazio instrumentalaz.

Musikalki, *Missa Solemnis* obra exigente bat da, erresistentzia handia eskatzen baitie abeslari guztiei. Solistek ez dituzte aria solistak eta duetoak; aldiz, sarritan abesbatzarekin elkartzen dira, baldintza beretan. Interpretentzat erabateko desafioa diren zatiak daude: nota eutsien tentsioa koruan, kontraste dinamikoak eta tematikoak, orkestra-idazketaren bertuosismoa, zeinak indar ikaragarria duten pasarteak leuntasun handiz burutu behar diren beste batzuekin nahasten baititu... Hori dela eta, *Missa Solemnis*ek musika sinfonikoaren erreferente izaten jarraitzen du, eta mendeetan zehar entzuleak eta musikariak inspiratu ditu bere edertasun eta ahalmen emozionalarekin.

### **Obrari buruz**

*Missa Solemnis* maisulan monumental bat da. Kristau-liturgiarako egina izan arren, lanak gainditu egiten esparru erlijiosoa, eta gai unibertsalak jorratzen ditu: errukia eta

erredentzioa. Lanean zehar, Beethovenek emozio-sorta zabala esploratzen du, solemnitatetik eta kontenplaziotik hasi eta asalduraraino eta ospakizuneraino. Horri esker, lanak sakontasun emozional aparta du.

Rudolf von Habsburg artxidukea, Beethovenen ikasle eta babeslea, Olmützeko apezpiku izendatu behar zutelako ekin zion konpositoreak lanari. Hori ospatze aldera, Beethoven 1818an hasi zen partitura lantzen, baina 1822ra arte ez zuen amaitu. 1824ko maiatzean, obra partzialki entzun zen Vienan, bere Bederatzigarren Sinfonia ere estreinatu zen kontzertu berean.

#### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 21 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# ***Missa Solemnis***

## **Ludwig van Beethoven**

Musika zuzendaria:  
**Nuno Coelho**

Ahots bakarlariak:  
**Mira Alkhovik**  
**Nerea Berraondo**  
**Michael Porter**  
**David Menéndez**

Abesbatzak:  
**Bilboko Koral Elkarte**  
Zuzendaria: **Enrique Azurza.**  
**Iruñeko Orfeoia**  
Zuzendaria: **Igor Ijurra.**

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS).**

Produkzioa: **Arriaga Antzokia.**

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)